


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 228. alea - 2018ko apirila



Pasaia Hiria Olerki
lehiaketako bi sariak Debara



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA




MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
maiatzaren 3an
18:00etan



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Zaintzak duin egiten gaitu, gora erratzak eta plumeroak!”, “Debako herriari” ...

06

KOLABORAZIOAK

Ane Itziar Bastida Lizaso (“*Altxorraren bila*”); iritzi zutabea: Nerea Lazkano

10

ELKARRIZKETA

Poesia liburu bana aurkeztu dute Goizane Aizpuruak eta Rafael Bravok

12

ALBISTEAK

Gaztelekuak Aste Santuan egindako ekimenak, II. Dantzari Txiki Eguna...

14

B. GAZTEA

Ikasketa bidaian Bartzelonara, Feli Akizu irakasleari elkarrizketa, inkesta...

Urteko batzarra egin du Zuhatza Euskara Elkarteak

Zuhatza Euskara Elkarteak apirilaren 13an (ostirala) egin zuen Urteko Batzar Orokorra, Kultur Elkartearen. Batzarraren hasieran, elkartearen gaur egungo egoera eta funtzionamendua izan ziren hizpide -2016an egindako gogoeta prozesuaren harira adostutako funtzionamendu berria, hain zuzen ere-.

2017ko ekimenen balorazioa egiteaz gain, aurtengo egitasmoez eta aurrera

begirako erronkez ere aritu ziren bileran bildutako bazkideak. Era berean, iazko balantze ekonomikoa eta aurtengo aurrekontuak azaldu eta onartu ziren.

Bazkide kuota berdin mantentzea erabaki dute (25 euro urtean) eta, besteak beste, iaz sortutako elkarteko zuzendaritza batzorde berriak lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du. Itziar Arana da presidentea, eta Terese Larrañaga ari-

tzen da presidenteorde lanetan. Koldo Aperribai idazkaria eta Iñaki Elosua diruzainaz gain, lau bokalek osatzen dute batzordea: Idoia Aulestiarte, Jon Amutxastegi, Joseba Escudero eta Izaro Aulestiarte.

Elkarteko bazkideek etxean jasoko dute batzarraren inguruko buletina.

Zuhatza Euskara Elkarteak



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba
Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza, Politikanako Sailburuordetza) gisuz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHilko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Koldo Aperribai

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria


Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunak. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Zaintzak duin egiten gaitu, gora erratzak eta plumeroak!

Sare sozialetan ikusia nuen, Euskal Herriko mugimendu feministako kideek martxoaren 8ko greba feministaren atarian, herri ugaritan eskulturrei amantalak eta garbiketarako gailuak jarri zizkietela, eta umorez beteriko ekintza sinbolikoa iruditu zitzaidan. Ekintza sinbolikoa diot, izan ere, honen helburua zaintzen afera erdigunean jartzea besterik ez da. Horregatik, Debako eskulturak ere gehigarriekin ikusterakoan, poztu egin nintzen.

Baina zuk, Itziar, zure gutunean honela diozu: "Hiru gizon ospetsuren irudiak irainduak, ez beren ibilbideagatik, gizonak zirelako baizik. Eta hau graba iruditzen zait". Benetan harrizten nauen adierazpena da.

Noiztik da plumeroa, amantala, erratza hartzea, edukitzea, erabiltzea irain bat? Zer dela eta sentitzen dugu kaltetuta eskulturetan irudikatutako dauden pertsona horien duintasuna objektu hauek ezartzen badizkiegu? Inoiz imajinatu al dugu Markiegi bere etxeko sukaldean erratza pasatzen? Sorozabal sukaldeko lanak egiten? Calbetón arropa zintzilikatzen? Eskandalua da hori pentsatzea? Agian ez dira lan garrantzitsuak? Gauza inportanteagoak izango zituzten egiteko akaso? Zeini esker egin ahal izan dute

egin dutena? Gustatuko litzaiguke haiek ere lan horietan irudikatzea, zergatik ez? Ez al da duina? Agian burua altxatuko balute, eurek berek hartuko lituzkete amantala eta plumeroa lan erreproduktiboan banaketa justua egite aldera!

Zaintza da bizitzaren oinarria, hauxe sostengatzen duena, historikoki emakumeek egin izan duguna, doan, eta eskertzarik eta omenik gabe. Europan, oraindik ere, emakumeok astero egiten ditugu 26 ordu ordaindu gabeko lanetan; gizonak 9 ordu egiten dituzten bitartean, ederra alde! Zer gertatuko litzateke lan horiek egiten dituzten emakumeek planto egingo balute? Horixe bera izan da aurtengo martxoaren 8ko greba feministaren leloetariko bat: emakumeak* geldituko bagina, mundua geldituko litzateke.

Aldarrikapen testuinguru honetan, eskulturetan egindakoa hausnarketa bultzatu nahi duen beste ekintza bat da. Beraz, 1) etxeko lanak (modu banatuan) egiteak eta honetarako erabiltzen diren tresnak edukitzeak duintzen gaitu, ez gaitu iraintzen; 2) gizonen kontrako ekintza? Ez, Itziar, ez; hauxe lan banaketa justu baten aldarrikapena egiteko ekintza zen, baita denon memoriaren aldekoa ere (emakumeona ere, izan ere,

ez badaude emakumeen eskulturak ez da hauek omentzeko motiborik ez delako egon, historiaren kontakizuna egiteko modu jakin batengatik baizik); 3) bai, gizonen eskulturrei jarri zizkieten garbiketarako gailuak, eta imajinatzen dut horretarako bi arrazoi nagusi zeudela: batetik, ez dagoela emakumezko eskulturarik (zergatik?), eta bestetik, goiko datuak ikusita (ordaindu gabeko lan banaketarena), ez dudalako uste justua izango litzatekeenik emakumezko eskultura bati jartzea, zuri bai?

Azkenik, kezagarria den beste gai bat dugu eskuartearen: zuk egindako "ekintza"ri dagokiona, hau da, eskulturetan jarrita zeuden gauzak kentzea. Zer egin behar dugu ados ez gauden gauzeekin (kartel, pankarta, amantal, kalean jarritako objektuekin), kendu? Edo nahiz eta ados ez egon, adierazpen askatasunaren alde gaude?

Egunerokotasunean gauza asko lantzeko eta erreibindikatzeko daudela diozu, eta hortxe izango zarela indarra falta ez zaizun bitartean, Debako emakume langileak omentzen dituen eskultura bat egiteko proposamena ere egin duzu. Primeran! Bide horretan aurkituko gara.

Nahia Eguskizaga Bilbao

Eraso matxisten kontrako protokoloa

Martxoko inflexio puntuari jarraituz, Talde Feministak lanean jarraitzen du, parekidetasunean eta errespetuan oinarritutako gizarte baten alde. Horretarako, oraingo honetan eraso matxisten kontrako protokolo parte-hartzailea abian jartzera goaz.

Helburua da erreminta bat izatea eraso matxista edo sexista bati erantzun egokia emateko. Prozesu parte-hartzailea izan dadin, norbanakoei, eragileei, kolektibo ezberdinei, tabernariei... gonbitea

luzatzea gustatuko litzaiguke.

Lanketa egiteko prozesua horrela izango da:

- Maiatzak 12: Erasoa sexista/matxistei buruz ari garenean zeri buruz ari gara?
- Ekainak 9: Zer egin dezakegu guk?
- Ekainak 30: Autodefentsa feminista
- Non: Debako Talde Feministaren Osioko lokalean (Gaztelekuaren gainean).
- Ordua: 11:00etan.

Debako Talde Feminista



Itziarko entitate txikiaren aurrekontuari buruzko argibideak

2018ko martxoaren 4an *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako idatzian, Itziarko Entitate Txikiko alkate den Zigor Aizpuruak, Debako Udalak 2018 urterako onartutako aurrekontuen hari-
ra, aipatu zuen "Itziarko auzotarrek beharrezko duten hainbat zerbitzuri kalte" egingo zaiola.

Jarraian egingo dugun laburpenean ikusiko denez, errealitatea oso desberdina da. Itziarko Entitate Txikiak 854.939 euroko aurrekontua kudeatuko du 2018an, eta zerbitzuei kalte egingo bazaie, ez da izango baliabide ekonomiko faltagatik.

Hasteko, iazkoarekin alderatuz, Itziarko Entitate Txikiko 2018ko aurre-

kontuak %5,51ko igoera izan du; Debako udalerrikoak, berriz, %4,02koa. Bestalde, aurrekontu arruntari eta zerbitzuak eta bestelako gastuei dagokienean, onartutakoak **Itziarko Entitate Txikiak berak proposatutako %100a jasotzen du**. Beraz, zerbitzuren bat kaltetuta ikusiko balitz, proposamenean aurkeztu ez dutelako da.

Inbertsioen arloan dekretu foralak, hau da, indarrean dauden legeek, gutxieneko 60.000 euroko inbertsio minimoak ezartzen ditu. Debako Udalak aurrekontuan Itziarko Entitate Txikirako onartutako inbertsioak 128.000 eurokoak izan dira; beraz, legeak adierazten duenaren bikoitza.

Debako Udalak ez du inolaz ere adierazi likidezia falta duela, aipatutako idatziak dioen bezala, guztiz kontrakoa baizik, publikoak diren datuek erakusten duten bezala.

Itziarko Entitate Txikiko ordezkariak legaltasunetan zentratu ordez elkarbizitza hobetu eta sustatzera zuzenduko balituzte indarrak, bi administrazioetako harremanak sendotzeko borondatea erakutsiko lukete.

Hau guztia esanda, Debako Udalak indarrean dauden legeak betetzen ez dituela argi badute, orain arte egin ez duten bezala, salatu dezatela dagokion lekuan.

Debarren Ahotsa

Debako herriari

Haika Aizpuruaren idatziari erantzutea erabaki dut, izan ere, inongo zorroztasunik ez izateaz gain, ez baitio bertako errejidoreen lanari batere errespeturik, ez du haiei buruzko ezagutzarik erakusten ere eta, gainera, etsipenetik egina dago, gure udalerraren garapenari buruzko ikuspegi katastrofikoak ematen duelako. Etorkezunari begira, errealitatekanpo dauden gertaerei buruz egiten duen pronostikoak eragile ekonomikoak motibazioa galtzera bultzatuz, aurreikuspen horiek kontuan hartzen badituzte, eta ondorioz, erakunde politikoen lana zaildu dezake, bere plan eta helburuak ezartzeko unean.

Adibidez, gezur borobila da esatea udal proiektu guztiak bertan behera gelditu zirela eta ez zela inbertsiorik egin. Onartuta ere haietako batzuek, hainbat kolektiboren aurkakotasuna medio, aurrera ateratzeko zailtasunak izan zituztela -Deba-Mutriku saihebidia, futbol zelaia, hondartzaren eta eskoilera-

ren zabalkundea, Casacampo, edota Agirre jauregia, besteak beste-, denak gauzatu dira eta orain haien onurak gozaten ditugu. Gainera, inbertsio garrantzitsuak egin ziren horretarako, batik bat Estatuko Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren partetik. Eta aurki hilerri berria eraikiko da, bi auzi-errekurtso gainditu ostean.

Eta Ekain aipatu duzunez, garai hartan alkate zen Elías Olalde lagun minaren lana defendatu nahi dut, gure Udalarentzat erabaki politiko erabat bidegabe baten ondorioz, proiektua Zestoara desbideratu zen arren. Eta badira dirutza handia eskatu zuten beste hainbat proiektu ere. Hainbat ideologia-tako politikariek baieztatu dute hori publikoki.

Bestalde, oso larritzat jotzen dut baita ere Deba plan estrategikorik gabeko herria dela baieztatzea eta hala izaten jarraitzen duela esan, gainera. Baina are larriagoa, gureak egin duela, Deba bere

amaierara iritsi dela adieraztea.

Interpreta dezaket, are gehiago, ados egon naiteke, Kresala hotelaren itxieraren ondorioz, turismoak Debaren ekonomia indartzeko duen eragina gutxitzen ari dela. Uste dut komeni dela ostalarien gremioak Udalaritza turismoa dinamizatzeke plan bat egiteko eskatzea, dagozkion ekimen eta jarduerekin, noski, aurrez honi buruzko eskakizunik ez balego. Baina jakin dezazun, Debak bere plan estrategikoa onartu zuela 2003-2007 legealdian, edo beste modu batera esanda, Arau Subsidiarioak, herri baten etorkizuna kudeatzeko dokumenturik onena.

Amaitu baino lehen esan nahi dut ez natorrela bat Udalaren garapenari buruz duzun ikuspegi katastrofikoarekin. Nik Debaren etorkizun oparo baten aldeko apustua egin jarraitzen dut.

Jesus Mari Agirrezabala

ALTXORRAREN BILA



Kaixo!

Eskerrik asko hona etortzeagatik. Gaur lau orduko ibilbidea egingo dugu, Madrilen dagoen Euskal Etxea bisitatuz (www.euskaletxea-madrid.com) eta bertan dauden altxorak bilatzeko aukera izango duzue.

Oraintxe bertan lehenengo solairuan gaude eta eskuinean ikusten duzuen Txoko taberna da. Bertan pintxoak, txakolina eta sagardoa dastatzen hasiko gara.

Hortik irten eta Pello Aranburu areto nagusian sartuko gara. Bertan, antzezlanak, liburuen aurkezpenak, Athletic eta Errealaren futbol partidak, laburmetriak eta abar ikusteko aukera izaten dugu. Urtean zehar milaka ikusle etortzen dira hona emanaldi ezberdinetan parte hartzera.

Eta ondoan dauden eskaierak igotzen baditugu, eskuinaldean, erakusketagela ikus dezakezue. Barruan dauden

margolanak, gaurkoak adibidez, Belen Gtrez-Maturana Arrospiderenak dira, *Donostiako Altxorak* izenpean agertzen direnak.

Artelanak utzita, ezker aldean dagoen atea irekiz gero, Euskaltegia aurkituko dugu. Dirudienez, hortxe aurkitzen da Euskal Etxeko altxorrik preziatuena.

Begira ikasleak jo eta ke lanean, beraiek ere bereganatu nahi dute altxor hori. Madrildarrak, katalanak, japoniarak, irlandarrak, amerikarrak, euskaldunak, afrikarrak... denetarik dago eta entzun dute altxor hori oso aberatsa dela.

Europan dagoen zaharrenetarikoa eta nahiko zaila omen da bereganatzea. Agian, apika, beharbada, Europako zailena, Finlandiakoa eta Hungariakoa bezala, ezberdina eta oso aberatsa delako. Baina ezin dugu neurtu Europako hizkuntzen artean zein den zailena edo errazena; oro har, zailtasuna eta erraztasuna ikaslearen arabera dira. Ama hizkuntzaren eta ikasi beharreko hizkuntzaren artean antzekotasun mailak markatzen duelako, batez ere, muga hori.

Horregatik eta bihotzeko kontuentziaz, ikasleek altxorra bereganatu eta gurekin elkarbanatu nahi dute. Nik Euskaltegian 15 urte daramatzat, irakasle gisa, beraiekin altxorraren bila jolasean. Badakite izena *Euskara* duela eta sakonago ezagutu nahi dute.

Guztira 198 ikasle dira, 170 heldu eta 28 haur.

Pozik dabilta solasean. Askotan kontatzen diet txikitari jaso nuela nik altxor hori: nire herrian, Debako ikastetxean eta nire aitaren ahotik.

Gustuko dute hori entzutea. Nik gustuko dudana bezala amari entzutea bere aitak, Joxe Lizasok, Azpeitiko base-ritik Debara jaistean, harategia ireki eta hizkuntza bakarra menperatzen zuela, bere ama hizkuntza zena.

Dendan: “¿Cuánto es?”, galdetzen ziotenean, berak “beintikintze” erantzuten ziela. Lotsatuta egoten zela, bazekielako hizkuntza horretan beste modu batean esan behar zuela baina... berak ezin.

Osterantzean, bere seme-alabek eskolan *Castellanoz* ikastea erabaki zuen. Esan eta horrelaxe egin zuten eta orain, amak, 77 urte dituelarik, galdera asko egiten dizkit altxor horri buruz. Nahiz eta dezente ezagutu, gauza gehiago ikasi nahi dituelako.

Berak dioen bezala, hizkuntzekin ala beste gauza askorekin, “berandu inoiz ez baino hobeto”. Nik, berriz, zera uste dut: “Eskerrak Debako ikastetxean D ereduaren ikasteko aukera izan nuen eta gurasoek horretara bultzatu ninduten”.

Bide batez, labur-labur, eskola garai hartan bizitako esperientzia bitxi bat kontatuko dizuet: 9 urte nituenean, eskolan geundela, irakasleak, Jabier Gaztañagak, ipuin bat idazteko eskatu zigun. Gipuzkoako Ipuin Lehiaketan parte hartzeko omen zen. Oraindik gogoratzen dut nik idatzitakoaren izenburua: “Nor ari da Thao Txan-eko eguz-





Euskararen Eguna ospatzen, Madrilén.



Korrika, Madrilén.

kia lapurtzen?”.

Zelako sorpresa irakasleak esan zidanean saritua izan nintzela eta berak eramango ninduela Gipuzkoako hiriburura sari hura jasotzera: 2000 pezeta! Nire bizitzan jasotako lehenengo saria!

Gogoan dut Donostiako Alde Zaharrean zegoen ikastola batean bazkaldu genuela, herri ezberdineta-ko haur askorekin. Nire mahaian, parean eserita, hamar urteko neska-txa bat zegoela, Hernanikoa. Bazkaria bukatzean bertsotan hasi zela, Maialen izena zuela; abizena, berriz, Lujanbio.

Ez dut inoiz ahaztuko egun polit hura!

Menu ezin hobea

Tour-arekin jarraituz, segi gorantz, bigarren solairura. Bertan Sagardi jatetxea dago. Dotorea, bai. Horra, normalean, Madrilgo mokofinak joaten dira. Halaber, esan beharra dago, horra eta hiriko beste jatetxe euskaldun askotara joaten direla. Baina guk ez dugu hor bazkalduko. Ikusten duzuen bezala, gaur itxita dago. Hortaz, azkeneko solairuan dagoen Sukaldean bazkalduko dugu; izan ere, Euskal Etxeko txokorik xarmagarriena da. Gainera, bazkideek dastatzeko menu ezin hobea prestatu digute: Tolosako babarrunak, Debako txahal xerrak piper berdeekin, Lasturko Goikolan egindako gazta eta baserriko intxaurreak.

Bazkaldu eta gero ezagutuko dituzue ikusteke geratu zaizkigun

txokoak: Liburutegia, Haurren Euskaltegi Txikia, Abesbatza eta Dantza Taldearen gela, Mendi Elkartearen bilera gela eta Aitorren kafetegia.

Txoko bitxi horietan, gure altxorra gorde eta zaintzen saiatu gara urte hauetan, Erdal Herriko hiriburuan, hiri erdialdean kokaturik dagoen Jovellanos kalean. Batzuek hiri zoragarria dela uste dute, bertatik zerura igotzeko aukera dagoela ere, baina nik faltan botatzen dut gure herrian dugun beste altxor bat...

Ez da mendia, Madrilek baditu inguruan mendi asko.

Ez da ibaia. Deba itsasadarra bezain ederra ez bada ere, Madrilek badu bere Manzanares eta “besterik ezean, ogi gogorra ere ogi”.

Zer botako du ba, faltan, kostaldean jaiotako emakumeak?

Gure Kantauri Itsasoa!

Batzuetan bare edo lasai, bestetan haserre, goibel. Beti indartsu eta lilaragarria dena.

Altxor hori ezin dizuet hona ekarri... baina nire herrira joan eta itsasoa bertan ikusi eta ezagutzera bai, gonbidatu ahal zaituztet!

Modu horretan, bertan dauden herritarrei galderak egiteko aukera izango duzue eta, bide batez, jakin ezazue, maiatzean, Debako Emakumeen Pala Taldekoak hona etorriko direla asteburu pasa.

Hortxe beste aukera bat ere, mintzalagunak egin eta hurrengo bidaia prestatzen hasteko...

Ane Itziar Bastida Lizaso



NEREA LAZKANO

Alabak haur hezkuntzako irakaslea izan nahi duela esan zidanean

Izugarrizko poza hartu nuen, ikastolako nire lehen urteak gogora ekartzearekin batera Andereño Kontxitzaz oroitu nintzelako. Orain dela 40 urte, kurtsoko ume guztiak gela berean sartu eta eguna berarekin pasatzen genuen jolasean, kantuan eta hasierako egunetan, negarrez. Baina ikastolako lehen urteak Andereño Kontxitarekin pasa genituen ikasle guztien artean, oroitzapen goxorik ez duen bat bera ere ez dut ezagutzen.

Kezkak ere sortu zizkidan bere erabakiak, umeen lehen urteetan gartzan baitira izaeraren oinarriak, eta hori izugarritzko erantzukizuna da. Tamalez, gaur egunean bizi ditugun gizarte eta hezkuntza sistemaren egiturengatik, irakasle izatearen NAHIA irakasle izateko ERABAKI bihurtu da. Nire garaian herri bertakoak izaten ziren gehienetan irakasleak eta jubilatutako artean leku berdinean aritzen ziren; irakasleak “euren umeak” ziren eta hala sentitzen ginen geu ere. Egungo sistemak ezarrita, irakasle asko ikastetxe batetik bestera ibiltzen dira kurtsuan zehar, honek ikasleentzat suposatzen dituen ondorioekin.

Bestalde, irakaslea izatea bizimodu izatetik lan bat izatera pasa dela iruditzen zait askotan, eta horrek sekulako tristura sortzen dit. Honengatik guztirengatik, lerro hauen bitartez zera esan nahi diot nire alabari: nahiz eta bidean oztopoak aurkitu, irakasle izatea zure bizimodu bihurtu ezazu eta irakasle betirako zure umeak izan daitezela.

“Egiten ari garen bidean mugarri izango da ekainaren 10eko giza katea”

Lau urte luze igaro dira Gure Esku Dago elkarteak Ficoban, Irunen, aurkezpena egin zuenetik. Bertan, gu herri bat izanda, nor garen erabakitzea herritarroi dagokigula aldarrikatu genuen.

Ordutik, herrietako taldeek egindako lanari esker batik bat, hainbat ekimen atera dira aurrera: ahaztezina 2014ko ekainean 150.000 lagun bildu eta Durango eta Iruñea lotu zituen giza katea. Haren ondotik etorri zen Zurriola hondartzan egindako mosaiko erraldoia eta, bakoitzak bere egunean, hainbat herritan egin izan dituen galdeketak. Gurean, maiatzaren 7an egin genuen.

Bidea egiten ari gara eta egiten ari garen bidean mugarri izango da aurten-go ekainaren 10ekoa.

Hura prestatzeko, Herritarron Ituna deiturikoak, “2019 arrazoi erabakitzeko” lelopean, erabakitzeko arrazoiak aztertu eta biltzeari ekin zion urte hasierarekin. Ongizatea, Kultura, Herritartasuna eta Gure Lurra izan dira, hurrenez hurren, urtarrilaren bukaeratik otsailera bitartean Bilbon, Donostian,



Iruñean eta Gasteizen ospatu diren mahai-inguruen ildo nagusiak.

Orain, mahai-inguruetan bildutako arrazoiari eskualde eta herrietakoak batuko zaizkie, eta horiek guztiak plaza-ratuko dira ekainaren 10ean.

Donostian hasi, Debatik pasa, Bilbo igaro eta Gasteizen, Parlamentuko atean bukatuko den giza kateak 100.000 lagun biltzea du helburu. Hiru hilabete eskas falta direla, izena ematera gonbidatzen zaituztegu.

Izen-ematearekin batera, erabakitzeko 2019 arrazoiaren multzoa loditzeko aukera izango dugu, gure arrazoi pro-

pioa besteinei biltzeko. Mahaiak ostiral arratsaldeetan 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan eguerdiko 12:30etik 14:00etara jarriko ditugu, plaza berrian.

*Herrietan barrena
non-nahi zabaldu da
arrazoia hor dabil
eskutik eskura
guk eramango dugu
hor ez dago duda
etxe zokoetara
ta parlamentura.*

Debako Gure Esku Dago

DEBADEZINE zine klub elkarte, denboraldian aurrera

Apirilaren bukaera aldera iritsi gara, zine-forumaren lehenengo denboraldiaren bi heren igarota ditugula. Batzordeak bere poztasuna adierazten du ekintza honek jaso duen harreragatik eta eskerrak eman nahi dizkie igandero edo zenbait igandetan Kultur Elkartearen aretora hurbiltzen diren ikusleei. Jakinarazten dugu batez beste 70 lagun inguru biltzen garela saio bakoitzeko.

Iragarri legez, 2018. honetan izenak eta lehenengo kuota jaso dira, 130 bazkide baino gehiago erregistratuz.

Udaberri honetan txartel ofizialak banatuko dira.

Hasieran hamabostetik behin izaten zen pelikula emanaldia. Otsailaz geroztik igandero izaten da, tarteka film klasikoaren bat proiektatzen delarik. Foruma bitan besterik ez da antolatu: Lehenengo saioan, “Pedaló”-ren emanaldian, eta “Volar” filmarekin bigarrenegoz, Udaletxearen ekimenez prestatu zen saioan, emakumeen aurkako indarkeriaren egunaren inguruko jardunaldien artean. Bietan filmetako partai-

deak bertaratu ziren eta beraiengandik lehenengo pertsona kontaktutakoa entzuteko aukera izan genuen.

Hemendik eta uda hasi arte, hau da, San Juan egunera arte, jarraituko dugu igandero saio bat eskaintzen –Debarren Egunean izan ezik–, eta kontuan izan, gorago adierazi legez, hiru filmetatik bat, gutxi gorabehera, zinema klasikoaren sailetik aukeratua izango dela.

Mila esker eskaintako harrera eta partaidetzagatik.

Debadezine zine klubeko Batzordea



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

Debako Emakume Pilotariak, Leire Etxaniz txapelkunarekin Eibarren

Bigarren urtez jarraian irabazi dute Lehen Mailako Emakume Master Cup txapelketa Leire Etxanizek eta Olatz Arrizabalagak, Patri Espinarrri eta Eneritz Arrietari 22 eta 7 irabazi ostean. Eibarko Astelena frontoian jokatu zen finala, martxoaren 25ean, harmailak jendez gainezka zeudela, eta zaleen artean debarrik ere ez zen falta izan -aldameneko irudia duzue horren lekuko-. Debako Emakume Pilotariak agertzen dira argazkian, Leire Etxaniz txapelkunarekin batera. Izan ere,



Master Cup txapelketa bigarren urtez irabazi duen pilotari etxebarritarra irakasle dute Debako taldekideek.

Patxi Olabarri Lasturren garaile, Gipuzkoako

Hiru Txirlo Bolo txapelketako hirugarren saioan

Lau jaurtialdi falta dira Gipuzkoako 49. Hiru Txirlo Bolo Txapelketari amaiera emateko. Aurtengo lehiari dagokion azken saioa maiatzaren 26an izango da (Azkoitiko Floreagan), eta, ekainaren 2an, Lehendakari Saria jokatu da Elgetan.

Txapelketa martxoaren 10ean abiatu zenetik, bost saio jokatu dira. Hirugarren tiraldia Lasturko bolatokiaren egin zen, apirilaren 7an, eta 38 bolarik parte hartu zuten. Etxean jokatzen



zuen Patxi Olabarri nagusitu zen hitzorduan, sei txirlo botata.

148 parte-hartzaile

junior mailako txirrindularien proban

Iaz baino hamahiru txirrindulari gehiago bildu zituen joan den apirilaren 14an jokatutako junior mailako txirrindularien probak. Guztira 148 parte-hartzaile -gizonezkoak guztiak- aritu ziren lehiari. Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak antolatutako lasterketan eta horietako 98k lortu zuten helmugara iristea.

Esprintean erabaki zen lasterketa. Urretxuko Bellota taldeko Xabier Isasa juniorra nagusitu zen; bi ordu, sei minutu eta 28 segundo behar izan zituen 86 kilometroko ibilbidea osatzeko. Mikel Retegui nafarra (Lizarte tal-

dekoa) iritsi zen bigarren postuan, eta Mateo Gonzalezek (Altsasuko Quesos Albeniz taldekoak) lortu zuen hirugarren postua sailkapenean.

Iñaki Murua (Tolosako Limusin taldekoa) gailendu zen mendiko sailkapenean eta talde onenaren saria Donosti Berrik eraman zuen.

Amaikak Bat Txirrindularitza Taldeak antolatutako hurrengo lasterketa maiatzaren 13an izango da (8:00etan emango zaio hasiera, Foruen plazan). Debako bira-zikloturista jokatuko da eta 128 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek.



JOSE LUIS SUDUPE

Irujori omenalditxo Debatik

Bi pertsona mota omen daude orokorrean: proaktiboak edo pasiboak. Gutxi batzuk, ordea, iraultzaile izatera iristen dira; Irujo da horietako bat. Sakea sota-manoz erantzutea eskuan pala bat balu bezala, konpasez markatu balitu bezala, kantxako angeluak bilatzeko trebezia, partidari erritmo eta abiadura ikaragarria jartzeko ausardia, beti lotsagabe, beti aske hiru pareta barruko limiteak hausteko...

Pilotari handi franko izan da historian zehar, baino Atano III, Gallastegui, Retegui II eta Irujo aipatuko nituzke nik pilotan jokatzeke erak aldatu dituztenak. Bakoitzak bere garaian eta bere apartazio ezberdinekin, pilota jokoaren eboluzio azkar eta iraultzailea lortu zuten.

Iruñako Labrit frontoi zaharrean ikusi hindudan txuriz jantzita aurreneko aldiz Juan, 16 urte izango hituen garai hartan, eskuak berotzera atera orduko, pilotari handi baten traza nabaria huen, porte eta postura dotoreak, nortasun handikoa, dena ematen zuena kantxa barruan.

Profesionalean eginiko ibilbide arrakastatsuen jarraipena ere egin nian. Irujo mitoaren lekuko izan gaituk esku pilota horrenbeste maite dugun guztiok, nahiz frontoi historikotan (Labrit, Astelena, Anoeta, Beotibar, Ogueta) jokatzen eta herri txikietako jaietan jokatzen, beti profesionaltasun handiz espektakuloa emanez. Irujoren buruan egongo dira betiko banan banako kantxa osoko 4 txapel, lau t'erdian banan banako 3 txapel eta binakako 5 txapel, alajaina.

Urtebete baduk frontoietan ikusten ez haugula. Azkenean bihotzez eraikitako pilotariari, bihotzak pilota utzi beharraztea gertatu duk. Bizitzaren ironiak!...

Zorte on, Juan, bizitza berrian, pilotazaleok ez haugu inoiz ahaztuko.



Poesia liburu bana aurkeztu dute Goizane Aizpuruak eta Rafael Bravok

Debara etorri dira aurtengo Pasaia Olerki Lehiaketako bi sariak. Xabier Portugal Saria, euskarazko lanen atalean, Goizane Aizpuruak Ibañezentzat izan da *Afasia Airlines* poema bildumarengatik, eta Altamira Puente Saria, gaztelaniazkoa, Rafael Bravo Arrizabalagak irabazi du, *Tempestad de luz* lanarekin. Bi egile debarren olerkiekin liburu bana argitaratu du Birmingham Editek argitaletxeak eta Kultur Elkartearen egin berri da aurkezpen ekitaldia. Idazleekin *Berriketan* pixka bat egiteko aitzakia eman digu hitzorduak.

Betidanik izan dute idazteko zaletasuna Rafael Bravo Arrizabalagak eta Goizane Aizpuruak Ibañezek. "Beti idatzi izan dut -aipatzen du lehenak-, niretzat existentziaren nahasmena orekatzeko modua delako; gehiegizko materialismoari espiritualtasun apur bat eskaintzeko modua". Aizpuruaren esanetan, "behar bat" da idazte eta sortze prozesua: "Gosea edo egarria dagoenean bezala, jan edo edan besterik ezin duzue egin. Zentzu batean halako zerbaite da; eguneroko bizitzan badaude *klik* bat egiten didaten zenbait gauza edo detale, edo hortik zerbaite sortu daitekeela iruditzen zait eta haritik tiraka jartzen naiz, askotan zer sortuko dudanez edo zer aterako den jakin gabe".

Biak ala biak saritu dituzte Pasaia Olerki Lehiaketako azken edizioan. Ez da, ordea, euren ibilbidean jasotzen

duten lehenbiziko errekonozimendua. Aurrez lehiaketa ezberdinetan parte hartu izan dute biek, baita sari ezberdinak lortu ere.

2000. urtean, adibidez, Tene Mujika lehiaketan accesita irabazi zuen Aizpuruak, 18 urtez azpikoaren kategorian, eta bi urte beranduago Eibarko Narruzko Zezen lehiaketan lortu zuen saria, gidoi motzen atalean. "Ordunk idatzitakoak -dio idazleak- kajoian gordetzekoak izan dira. Azken lehiaketa honen kasuan, gehienbat izan da buruan sartu zitzaidalako lan honek argia ikusi behar zuela eta, argitaletxe eta autoedizioez gain, lehiaketa beste aukera bat da". *Berriketan* aldizkariko ohiko kolaboratzaile ere bada Aizpuruak. "Arlo edo estilo ezberdinak jorratu izan ditut, baina erosoena agian (orain gutxi deskuribitu dudanez), poesia da niretzat.

Halaxe ateratzen zait eta idazten dudana poesia omen dela esan didate, *kar-kar*. Lotsa eta guzti ematen dit esateak ez dakidala benetan zer idazten dudanez".

Bravoren ibilbide literarioan, Lasarte-Oriako literatur saria (*La casa apagada* lanarekin), eta Ermua Hiria saria (*Catálogo de intrigas* lanarekin) aipa litezke, besteak beste, poesiari dagokionean. Baina kontakizunak eta kontakizun laburrak ere gustuko dituela aitortzen du idazleak eta esparru horretan ere irabazi du dagoeneko sariren bat edo beste -Deba 100 hitzetan lehiaketan, esate baterako-.

Norbere poemak edo idatziak papelean argitaratuta ikusteko bidea zabaldu izan diete lehiaketek bi idazleei. "Argitaletxe ezberdinekin saiatu ostean -azaldu du Bravok-, Beylebooks etxeak kaleratu zuen nire lehen liburua, *Cuerpo*

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entrenamiento Registrado Nº 27/05/049
NIVEL 2

y alba; eta Pasaiakoa bezalako lehiaketek erraztu egiten dute hori". Bat dator Aizpurua: "Hau bezalako lehiaketetan argitalpena izaten da saria. Oso ondo dago, norbere lana papererazten delako, eta ondorengo lanetarako aurkezpen txartel gisa ongi etortzen dela diote; nork daki hemendik aurrerakoa..."

LIBURUAK ESKURAGAI

Pasaia Hiria olerki lehiaketan saritutako lanak liburu formatuan plazaratu ditu orain Bermingham Editek argitaletxeak. Ohiko bideetatik lortu daitezke argitalpenak; liburutegietara ez ezik, liburu-dendetara ere iritsi dira jadanik.

Gustura agertzen dira bi idazleak euren olerkiak paperean ikusita. "Edozein poemak, osoa izan dadin, irakurlearen 'brotxea' behar du, poema autentifikatuko duen norbait, eta hori, neurri handi batean, lan baten argitalpenarekin lortzen da", nabarmendu du Bravok.

Aizpurua aitortzen du "sentsazio ezberdinak" izan dituela bere lanak argia ikusi duenean: "Eskuen artean izan nuen lehenengo unean, lana eta poemak nireak ez zirela irudituz zitzaizdan. Gertatu ohi den sentsazio bat omen da, zenbait gauzek, idazketaz gorpuzten direnean, norberarenak izateari uzten diote eta beste zerbait bihurtzen dira, desjabetze prozesu bat bezala edo. Orain, irakurtzen dituenarenak dira, bere interpretazio eta bizipenen bidez berriz sortuko dituelako amaigabeko gurpil batean".

Aurrera begira, idazten eta sortzen jarraitzeko asmoa dutela azaldu dute idazleek. Oraingoan, baina, argia ikusi berri duten liburuetan eta Pasaian jasotako sarietan jarri nahi izan dugu arreta. Euren sormen lanaren nondik norakoak euren hitzetan jaso nahi izan ditugu ondoko lerrootan.

Afasia Airlines eta Tempestad de luz, idazleen hitzetan

Izenburuetatik has gaitzen. Zergatik Afasia Airlines eta Tempestad de luz?

Goizane Aizpurua: Badakizu, askotan amaieran jartzen den izenburuak ez dauka hasierakoarekin zerikusirik. Idazten zoazen heinean poema berriak eta ideia berriak sortzen hasten dira, baina ez dizut gezurrik esango, dena marketing kontua da, *kar-kar*. Hasieran *Arrakalak* edo *Barne Bidaiak* bezalako izenburuak bururatu zitzaizkidan, baina gero abiapuntu izan zen *Afasia* poema eta izenak iradoki dezakeen jakin-nahi horri helduz bigarren poema baten izenburua (*Afasia Airlines*) hartu zuen. Lehenengo poema horri erreferentzia egiten diona edo...

Rafael Bravo: Egunsenti guztietan, nire aldartea dena delakoa izanda ere, egunak argi nahaspila nekaezina eta misteriozua eskaintzen dit; hortik nire lanaren izenburua: *Tempestad de luz*.

Kontaiguzue, zer dakar liburu bakoitzak? Nolakoak dira saritutako lanak?

G.A.: Liburuak edo poema sortak bidaia bat dakar, poemak bata bestearen atzetik irakurriz gero. Ez da janaldi batean irensteko liburua agian, poemek beraien denbora behar baitute irakurketarako, baina, hala eginez gero, barneratzen da bidaia horren sentsazioa.

Norberaren barrenetik egindako bidaia bat da, abiatze eta iriste aireportuak hasiera batean zeintzuk izango ziren ia jakin gabe idatzitakoa.

R.B.: Bi atal dauzka liburuak: *Apenas un Alba*-k poema intimo eta sekretuak batzen ditu; eta *Concisiones* atalean ezagutzekoak modukoak diren eguneroko poemak agertzen dira. Bestetik, *Tempestad de Luz* liburuan, Elena Román poetaren hitzaurre eskuzabalaz gain, nire oinarri poetikoaren inguruko azalpen labur bat ere badator, *Pan duro* izenburupean. Eta nire curriculum xumearen erreseina bat ere agertzen da.


Pasaia Olerki Lehiaketako bi sariak eskuratu dituzue. Zorionak! Nola jaso zenuten albistea?

G.A.: Mila esker! Telefono dei baten bitartez izan zen, espero ez duzun albiste horietako bat. Gauza hauek luze jotzen dute eta lana bidaltzen denetik ilusioaren bero hori mantentzea zaila izaten da. Normalean halako notiziak ideia buruan jada hotz dagoenean datoz, eta sekulako *subidoia* izaten dira, *kar-kar*.

R.B.: Sari bat jasotzeak indarberri egiten zaitu; batetik, aitorten bat delako, eta, bestetik, azkenean poema bat sortzeak helburu duen zirkulu behar-beharrezkoa ixten delako horrela: poetaren eta irakurlearen arteko komunikazioari dagoen zirkulua, hain zuzen ere.

Izaro Aulestiarte






145 nerabek parte hartu dute Gaztelekuak Aste Santuan antolatutako ekimenetan



Aste Santuko oporretan, Gaztelekuak egunero zabaltzeaz gain, adin bakoitzeko nerabeekin irteera bat egin nahi izan dugu, horrela 145 lagunren parte-hartzea sustatuz.

13 urteko gazteekin, Errekalde-Donostiako Txiki Parkera joan gara... bola eta lagun artean goiza pasatzera.

14 urtekoekin, Durangoko bolatokia arratsalde pasa! Boloak bolo-bolo

izan ditugu!

15 urtekoekin, abentura eta glamourra uztartu ditugu; Nafarroako Igantziko Irrisari abentura parketik, Miramoneko EITBko Gure Kasa programara. Egun biribila pasa dugu, zuhaitzetik platora! Gaztelekuko Gaztefutbol taldearekin ikasturteko asteroko entrenamenduak albo batera utzita, Bergaran izan gara hango gazte-

ekin futbol partida jokatzen.

16 urtekoekin, Lasturko mendi bueltaren ostean, Paintballean aritu gara. Estrategiak taldean eta adrenalina gorputzean!

17 urtekoek ez dute oraingoan ekin-tzarik izan, lan eta lan ibili direlako. Port Aventura helburua gero eta hurbilago dute! Aupa zuek, gutxi falta zaizue eta!

Debako Gaztelekuko Hezitzaileak

350 zuhaitz berri, Elorriagan

Hogeita hamar bat lagun bildu ziren joan den martxoaren 25ean (igandea) Elorriaga inguruan, zuhaitzak landatzeko deialdiarekin bat eginez. Itziarko Auzo Udalak, Lizarbe Guraso Elkarteak eta Euskal Kostaldeko Geoparkeak antolatu zuten ekimena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin.

Bi orduz aritu ziren landatze lanetan, zuloak egin eta zuhaitzak aldatzen. Guztira, 350 zuhaitz eta zuhaixka landatu zituzten, hala nola lizarrak, urkiak, sagarrondoak, erramuak, basarnak, elorri zuriak, ametzak, zuhandorak, oilaranak, arteak edo zumarrak. Eta, ohiko landatzeaz gain, 100 metroko heskaia ere landatu zuten hitzordura hurbildu ziren herritarrek.

Izan ere, ekimenak helburu bikoitza zuen. Batetik, Biotopoaren eremuan bertako basoa eta paisaia berreskuratzea eta, bestetik, heskaia -lursailen arteko zuhaixkez osatutako



mugak- sustatzea. Aurreko urteetan egindako landaketei esker, "poliki-poliki ingurune horretako basoa hazten" ari dela nabarmendu dute Geoparkeko arduradunek.

Behin lanak amaituta, mokadu bat eskaini zitzaizen parte-hartzaile guztiei Lauhaizeta elkartearen.

Giro paregabea

II. Dantzari Txiki Egunean



Pasa den apirilaren 14an (larunbata), II. Dantzari Txiki Eguna izan genuen Deban. Ibarrako ALUR, Oñatiko OÑATZ eta Itziarko ANDUTZ izan genituen talde gonbidatuak, giro paregabea izan genuen eta Debako kaleak alaituz ibili ziren.

13:30ean Foruen plazan elkartu ziren dantzariak eta dantza saio polita eskaini zuten. Ondoren, Aldats pilotalekuan bazkaria egin zuten 135 dantzariak eta, bazkaldu ondoren, jokoak izan zituzten eguna bukatzeko.



Lerro hauen bitartez, eskerrak eman behar dizkiegu hamaiketako prestatu ziguten elkarteei: Itxas Begi, Ozio Bide, Arrano eta Batzokia.

Gure Kai Euskal Dantzari Taldea

Ezten Giro, Tele5eko *Got Talent* saioan

Ezten Giro erromeri taldeko kideak -tartean Alaitz Eskudero debarra- Tele5eko "*Got Talent*" saioaren finalean izan ziren apirilaren 11n. Sonakay talde flamenko euskaldunari koroak egiten aritu ziren, Leonard Coheren

"Hallelujah" abestiaren bertsio batean.

Alboan izan dituztenei eskerrak emanez, "esperientzia ahaztezina izan da, mundu berri bat ezagutu dugu!", adierazi du erromeri taldeak Facebooken.

Eskultura sariketa antolatu du Udalak

Iazko mural/grafiti lehiaketaren ildotik, aurten eskultura onena saritze-ko prozesua abiatu du Debako Udalak. Herrian arte garaikidea sustatzea eta, aldi berean, sortzaileei parte hartzeko aukera luzatzea du helburu ekimenak. Lehiaketa irabazten duen eskultura eskoilera bukaeran kokatuko da, "espazio publiko horren itxura hobetu eta erakargarriagoa egin" asmoz.

Bi fase izango ditu lehiaketak; bate-tik, parte hartzeko interesa erakusten duten artistek euren proiektuaren maketa aurkeztu beharko dute maiatzaren 25a baino lehen, eta aurkezten

diren lan horietatik epaimahaiak hamar pertsona edo talderenak hautatuko ditu gehienez, sormen, originaltasun eta kalitate irizpideei jarraiki. Bestetik, epaimahaiakideek hartutako erabaki horren harira, herritarrek aukeratuko dute gero irabazlea (bozketa bidez), gainontzekoak erreserban utziz.

Deialdia 16 urtetik gorakoei egiten zaie, eta indibidualki nahiz taldean har dezakete parte. Izen-ematea maiatzaren 25ean bukatuko da (eguerdiko 14:00etan). Sariketaren inguruko informazioa eta oinarriak www.deba.eus atarian kontsulta daitezke.

Debako eta Itziarko txoriei buruzko liburua, kalean

Hemen gaude, zuen auzoko hegalariaik. Gu gara Deba-Itziarko txori arruntak. Horixe da Jose Luis Albizuk, Lukax eta Nagore Dorronsorok (*Hegaz EGITEN*) kaleratu berri duten lanaren izenburua. Inguruotako txorien ezaugarriak, deskribapenak eta hainbat artikulua eta irudi koloretsu biltzen ditu liburua, euskaraz eta gaztelaniaz. Txoriak ditu protagonista, baita narratzaile ere, lehenengo pertsonan mintzo baitira hegaztiak.

Liburua 10 euroan dago salgai. Apirileko azken asteburuan, adibidez, udal-letxe azpian eros daiteke (12:00-14:30).



Enplegu bulegoa, zabalik berriz ere

Debako Udalak jakinarazi du enplegu bulegoa zabaldu dela berriz ere Eguneko Zentroko lehen solairuan -Simon Berasaluce plazan-. Lanbide-aren bulegoa astearte eta ostegunero egoten da zabalik, 8:00etatik 15:00etara.

Birgaitze-lanak egiteko laguntzak

Etxean edo eraikinean birgaitze-lanak egin nahi dituzten herritarrei (partikularrei zein bizilagunen komunitateei) diru-laguntzen gaineko doako zerbitzua eskaintzen diela gogorarazi du Debegesa agentziak. Diru-laguntzen inguruko informazioa emateaz gain, eta eskatuz gero, Debegesa arduratzen da Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen espedienteak tramitatzeaz. Informazio gehiagorako: 943 82 01 10.

Berriketan Gartea

2018ko apirila
Mendata BHIko Prentsa Tailerrean Sortua

4. mailako ikasleak ikasketa bidaiara Bartzelonara

Aurten ere, 4. mailakoek ikasketa bidaiara egin zuten martxoaren 19tik 23ra arte. Ikasketa bidaiara hau burutzeko urtean zehar zenbait ekintza egin zituzten, hala nola txosnak jarri, kilometroak jaialdira joateko autobusa antolatu, institutuan asteazken eta ostiraletan ogitartekoak saldu, kamisetak eta jertseak saldu, Gabonetan etxez etxe abesten ibili, loteria saldu, moda-desfilea egin... Azkenean, lortu beharreko dirua lortu zuten eta Bartzelonara joan ziren. Irakasle batzuekin egin zuten bidaiara: Enrike Izagirre, Itziar Txurruka, Ibon Arriola eta Eneko Elezgarrairekin.

Martxoaren 19an, 9:00etan irten ziren Debatik eta 13:00etan iritsi ziren Murillo de Gallegora (Huesca). Bertan, rafting-a egin eta spa batera joan ziren. Bazkaldu ostean, Bartzelonarantz abiatu ziren. Cabrera de Mar-eko aterpetxean afaldu eta lo egin zuten.

Biharamunean, goizean *scape room*-era joan ziren eta, amaitu ondoren, bazkaltzera joan ziren.

Arratsaldean, hiru taldetan banatuta, Sagrada Familiara, Güell parkera eta Aquariumera joan ziren eta bisita gidatua izan zuten.

Martxoaren 21ean, goizean, Bartzelona hobeto ezagutzeko, Auzo Gotikoan "ginkana" bat egin zuten eta arratsaldean denbora libreza izan zuten. Laugarren egunean, berriz, paintballa eta "Humor amarillo"ko ekintzak egin zituzten. Oso ondo pasatu zuten.

Bosgarren egunean, martxoaren 23an, gosalduta eta gero, Port Aventura parke tematikora joan ziren. Bertan pasa zuten eguna. Parkea itxi ondoren, autobusa hartu zuten Debara bueltatzeko.

Martxoaren 24an, goizaldean iritsi ziren Debara eta, irakasleak agurtu ostean, ikasleak etxera joan ziren. Oso zintzo ibili ziren eta oso ondo pasatu zuten bidaiara. Datorren urtekoak ere hala ibiltzea espero dugu.

4. mailako ikasleek eskerrak eman nahi dituzte ikasketa bidaiara egin ahal izateko antolatu zuten desfilea-



ko jaso zuten laguntzarengatik. Mila esker, Yako, Mugan, Lua, Maitane, Ramos, Estilo, Leire eta Olano jantzi-dendei; Jartxa loradendari; eta Ilea, Adats, Janire, Man, Orain eta Maxpe ile-apaindegiei. Eskerrik asko guztiei!

Emakumeen Nazioarteko Eguna Mendata Institutuan

Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunarekin amaitzeko antolatu ziren ekintzekin bat egin genuen Mendata ikastetxeko emakumeok ere; bai irakasleok, bai ikasleok. Greba egin ordez, ordubeteko lanuztea egin genuen.

Goizeko 11:50ean, ikastetxetik herriko plazarantz abiatu ginen emakumeok, manifestazioan, hainbat pankartarekin. Herrian zehar manifestazioa egin ostean, plazara iritsi ginen

eta, bertan, Debako beste emakume taldeekin elkartu ginen, kalea emakumeena ere badela adierazteko. Gure eskubideak aldarrikatzeko, plazan hainbat ekintza burutu genituen. Sokasaltoan, goman eta baloiarekin ibili ginen jolasean... Oso giro atsegina eta dibertigarria sortu zen. 12:45ean ikastetxera itzuli ginen.

Bitartean, institutuan, gizonezko irakasle eta ikasleak geletan bildu ziren gaiari buruz hitz egin eta hausnarketa bat egiteko. Gaiarekin lotutako bideo batzuk ere ikusi zituzten.

Amaitzeko, esan beharra dago emakumeen eguna ez dela egun bat soilik, urteko beste 364 egunak ere hor daudela, emakumeon eskubideak bultzatu, sustatu eta bermatzeko.



*Feli
Akizuri*



*“Zalantzarik gabe, Mendata ikasketxean
geldituko nintzateke”*

Oraingo honetan, gure ikastetxean Plastika eta Artisautza arloko irakaslea den Feli Akizuri egin diogu elkarrizketa. Berak burututako ikasketak eta egun irakasten duen arloa izan ditugu hizpide elkarrizketa honetan.

Zer ikasi zenuen?

Arte Ederrak.

Non burutu zenituen ikasketak?

Bilbon, Sarrikon eta Leioan.

Damutu al zara inoiz hori ikasi izanaz?

Ez. Hasiera batean, lehenengo mailan nengoela, zalantzak eduki nituen. Baina 2. mailatik aurrera eta 5. mailara arte gustura egon nintzen.

Hori ikasi behar zenuela esan zenuenean, zein izan zen zure gurasoen erreakzioa? Ondo hartu al zuten erabakia? Laguntza eskaini al zizuten?

Ez zidaten eman nahi matrikularako dirurik. Kontrako jarrera azaldu zuten eta hasieran ez zidaten ezertan lagundu. Azkenean, amore eman zuten eta nahi zuena egiten utzi zidaten.

Zenbat urtetan egin zenuen karrera?

Bost urtetan.

Norbaiti gomendatuko al zenioke ikasketak horiek burutzea?

Bai, baina hartzen duzuen espezialitatearen arabera. Hau da, ondo aukeratu behar da, nire ustez, gero erabaki hortaz ez damutzeko.

Lanean hasi zinenetik, zein izan zen zure lehenengo ikastola edo institutua? Gogoan duzu?

Antonianoetan ibili nintzen, Zarautzen.

Gustura zaude gaur egun hemen?

Bai, orain primeran nago.

Eskolaz aldatzeko gonbidapena egingo balizute eta baldintza berdinak izango balira, zer egingo zenuke?

Hemen, Mendata ikastetxean, geldituko nintzateke, zalantzarik gabe.

Denbora asko kentzen al dizu lanbide honek?

Beno, batzuetan bakarrik.

Elkarrizketa

Inkesta

Adiskidetasuna

Adiskidetasunari buruzko iritzi ezberdinak daude gazteen artean eta gaiaren inguruan 2. DBHko ikasleek zer pentsatzen duten jakin nahi izan dugu hilabete honetan:

- 1.- Zure ustez, zer da adiskidetasuna?
- 2.- Erabaki bat hartzeko orduan, zure lagunaren iritzia behar duzu?
- 3.- Lagunekin zaudenean, zer gustatzen zaizu egitea?
- 4.- Lagun bezala zenuen norbaitek zure lagun izateari utzi al dio?
- 5.- Lagunen lagun zara?
- 6.- Etorkizunean, lagun berberekin jarraituko al duzu?
- 7.- Inoiz haserretu al zara zure lagunekin?

Gerson Calo



- 1.- Nire lagunekin daukadana.
- 2.- Batzuen bai.
- 3.- Denbora pasatzea.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.



Beñat Irtondo



- 1.- Kuadrilla.
- 2.- Ez.
- 3.- Ondo pasatzea.
- 4.- Ez.
- 5.- Noski.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.

Denbora-Pasak

Hieroglifikoak



Asmakizuna

Zer da aurrean punta duena eta atzean zuloa?

Leire Sagarna



- 1.- Lagunak izatea.
- 2.- Bai.
- 3.- Jolastea.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.

Xabier Chivite



- 1.- Lagunak izatea.
- 2.- Ez.
- 3.- Ondo pasatzea.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.

Maren Beristain



- 1.- Lagunak izatea.
- 2.- Bai.
- 3.- "Kotilleoa".
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.
- 7.- Bai.

Markel Villa



- 1.- Lagunen lagun izatea.
- 2.- Bai.
- 3.- Jolastea.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez dakit.
- 7.- Bai.

Sudokua

5	3			7			
6			1	9	5		
	9	8					6
8				6			3
4			8		3		1
7				2			6
	6					2	8
			4	1	9		5
				8			7
						7	9

Txistea

- Soldadu batek zera galdetu dio beste bati:
- Zertan ari zara?
 - Hemen, emazteari idazten!
 - Eta zergatik idazten duzu hain poliki?
 - Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen!

Asmatzunaren erantzuna:
-Orratza



Prentsa tailerra 2017-2018

Goretti Unanue, Lorena Ladera, Elene Molina, Paula Del Olmo, Kimetz Etxabe, Enaitz Goikoetxea, Unax Arrizabalaga, Itziar Egaña, Maria Mendoza, Naroa Etxeberria, Alaitz Albizu eta Unax Urteaga.

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

APIRILAK 27, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaraztea, plazan.

APIRILAK 28, LARUNBATA

-10:00. **Bisita gidatua: Flysch beltza.** Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

-22:30. **Plazatik Gaztetxera** bertso saioa (finalerdia), Debako Gaztetxean.

APIRILAK 29, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua: Gotikoaren altxorra, Deban** (Santa Maria eliza ezagutuz).

APIRILAK 30, ASTELEHENA

-17:30. **Bisita gidatua Debatik Zumaiara itsasontziz.** Informazioa: www.geoparkea.eus.

MAIATZAK 1, ASTEARTEA

-Langileen Nazioarteko Eguna.

-10:00. **Bisita gidatua: Flysch beltza.** Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

MAIATZAK 4, OSTIRALA

-22:00. **Antzerki emanaldia: "Cronopia Xpress" eta "Mait(k)ale borroka"** (zuzendaria: Getari Etxegarai), Kultur Elkartearen. Hogei minutuko ikuskizunak dira (euskaraz).

MAIATZAK 5, LARUNBATA

-**Erromeria Eguna** Itziarren, Andutz Kultur Taldearen ekimenez (egun osoko egitaraua).

-20:00. **Kontzertua: "MUD CANDIES"** (Bilbo), Ondargain tabernan.

MAIATZAK 12, LARUNBATA

-09:30. **Karst. Koralezko mendiak eta bailara ezkutua** ibilaldia. Itziarko plazan hasiko da. Izen-ematea: turismo@geoparkea.com.

-12:15. **Tronboneitor Rock.** Gipuzkoako musika eskoletako tronboi ikasleen IX. topaketa. Foruen plazan.

MAIATZAK 13, IGANDEA

-08:00. **Debako bira-zikloturista,** txirindularien proba.

MAIATZAK 18, OSTIRALA

-20:00. **Kontzertua: "SWING BULLETS"** (Eibar), Ondargain tabernan.

MAIATZAK 18-19-20

-**Debarren Eguna.** Egitarau berezia antolatuko du Jai Batzordeak.

MAIATZAK 26-EKAINAK 3

-**Euskal Antzerki Astea,** GOAZ Antzerki Taldearen ekimenez.

Lehiaketak

-**Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa** antolatuta du Debako Udalak. Herri mailan bi sari banatuko dituzte (150 eurokoa bakoitza) eta eskualde mailako sari bat egongo da jokoan (200 eurokoa). Lehiaketan parte hartu ahal izateko izena eman behar da maiatzaren 15a baino lehen (Turismo bulegoan). Informazio gehiagorako: 943 19 24 52 (10:00-14:00/ 16:00-19:00) edo hondartza@deba.eus.

-**Debako I. eskultura sariketa** abiatu du Udalak, modalitate honetako sortzaileei eskoilera bukaera ezarri nahi den eskultura sortzeko aukera luzatzeko helburuarekin. Maiatzaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira proiektuaren maketak. Informazio gehiagorako: www.deba.eus ataria edo aldizkari honen 13. orrialdea.

Barren aldizkariaren 25. urtemuga ospatzeko festa Elgoibarren

-**Barren** aldizkariak 25 urte bete dituela ospatzen ari dira aurten Elgoibarren eta herritar guztiekin ospatzeko jaia antolatzen dabilta maiatzaren 25erako (ostirala). Aldizkari azal-orrian agertu diren lagun guztiak eta gehiago batuko dituzte Kalegoen Plazan, 19:00etan argazkia ateratzeko. Eta, 21:00etan, Maalan, kantu-dantza afaria izango da, Angel Marizkurrena abeslariarekin. Afarirako txartelak aurrez lortu behar dira. 16 euroan daude salgai, **Barren**-en edo Elgoibarko Izarraren bulegoan (Uribitarte, 2), maiatzaren 21a bitarte.

Ikastaroak KZgunean

KZgunea arratsalde arituko da maiatzean (16:00etatik 20:00etara). Hainbat ikastaro eskainiko dira: oinarriko interneta, ofimatika tresnak, internet bidezko erosketak seguruak...

Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzgunea.eus ataria.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 27, 28, 29.**
maiatzak 7, 8, 9, 10.

Burgoa Zuazo: **maiatzak 11, 12, 13, 21, 22, 23, 24.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 28 eta maiatzak 5

BURGOA ZUAZO: maiatzak 12 eta 19

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: undersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasak
- Altzariak
- Osagarriak



Mobila: 699 975 206
Tel.-faxo: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzia
943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGHLEA
Odontologia orokorra,
kirurgiari eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



k
kutxabank

Hazitik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazitik@gmail.com



Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

A
D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPIUZKOA) Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482



2018-2019

Batxilergorako aurrematrikulazioa:

Maiatzaren 2tik 14ra

BATXILERGOA (BH)

Giza eta
gizarte
zientziak

Zientziak

Artea

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

- Artistiko Musikala

**GURASOENTZAT BILERA: APIRILAREN 26AN,
ARRATSALDEKO 18:00ETAN MENDATA IKASTETXEAN.**

ATE IREKIAK:

**MAIATZAREN 2AN, 18:00ETAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**



943 748 397
013431aa@hezkuntza.net

